AGINDUA, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ HASIERA EMATEN BAITZAIO AGINDU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAREN ERREGISTRO ELEKTRONIKO OROKORRA ARAUTZEKO ZUZENBIDE PUBLIKOAREN MENDEKO PROZEDURETAN.

ORDEN DE LA CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO, POR LA QUE SE DA INICIO AL PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN DEL PROYECTO DE ORDEN PARA REGULAR EL REGISTRO ELECTRÓNICO GENERAL DEL SECTOR PÚBLICO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI EN SUS PROCEDIMIENTOS SUJETOS AL DERECHO PÚBLICO.

I. Proiektatu den erregulazioaren beharra eta horri buruz indarrean dagoen araudia.

I. Necesidad de la regulación proyectada y normativa vigente al respecto.

Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzak agindu bat egingo du Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren Erregistro Elektroniko Orokorra arautzeko zuzenbide publikoaren mendeko prozeduretan, Herritarrei arreta osoa eta kanal anitzekoa eta zerbitzu publikoetarako sarbidea bitarteko elektronikoen bidez emateari buruzko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren aginduari jarraituz.

La Dirección de Atención a la Ciudadanía y Servicios Digitales siguiendo el mandato del Decreto 91/2023, de 20 de junio, de atención integral y multicanal a la ciudadanía y acceso a los servicios públicos por medios electrónicos, va a elaborar una orden por la que se regula el Registro Electrónico General del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi en sus procedimientos sujetos al derecho público.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak administrazio elektronikoaren oinarriak arautzen dituzte, eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez emateko printzipio orokorrak ezartzen dituzte. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluak ezartzen duenez, administrazio bakoitzak erregistro

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y la Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, regulan las bases de la Administración Electrónica, estableciendo los principios generales que rigen la prestación de servicios públicos mediante el uso de medios electrónicos. El artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas establece que cada Administración



Este documento es una representación del original disponible a través del localizador y la sede electrónica indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako lokalizatzailearen eta egoitza elektronikoaren bidez eskuragarri dagoena.

LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T5EXG-HW05
EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
SINATZAILE / FIRMANTE: OLATZ GARAMENDI LANDA | 2024/02/22 16:02:49

elektroniko orokor bat izango du. Erregistro horretan, edozein administrazio-organotan, organismo publikotan edo haiei lotutako edo haien mendeko erakundetan aurkezten edo jasotzen den dokumentu ororen idazpena egingo da. Beste organo edo partikular batzuei zuzendutako dokumentu ofizialen irteera ere jaso ahal izango da bertan.

dispondrá de un Registro Electrónico General, en el que se hará el correspondiente asiento de todo documento que sea presentado o que se reciba en cualquier órgano administrativo, Organismo público o Entidad vinculado o dependiente a éstos. También se podrán anotar en el mismo, la salida de los documentos oficiales dirigidos a otros órganos o particulares.

Ezartzen du, halaber, administrazio bakoitzari lotutako edo haren mendeko organismo publikoek beren erregistro elektroniko propioa eduki ahal izango dutela, erabat elkarreragingarria eta Administrazioaren Erregistro Elektroniko Orokorrarekin konektatua.

Establece, asimismo, que los organismos públicos vinculados o dependientes de cada Administración podrán disponer de su propio registro electrónico plenamente interoperable e interconectado con el Registro Electrónico General de la Administración de la que depende.

Administrazio edo erakunde bakoitzaren erregistro elektronikoak bermatuko du, egiten den idazpen bakoitzean, zenbaki bat, haren izaera, aurkezpenaren data eta ordua adierazten dituen epigrafea, interesdunaren identifikazioa, administrazio-organo igorlea, hala badagokio, eta hura bidaltzen zaion pertsona edo administrazio-organoa, eta, hala badagokio, erregistratzen den dokumentuaren edukiaren aipamena. Horretarako, ordainagiri bat jaulkiko da automatikoki, dagokion dokumentuaren kopia kautotua, aurkezpen-data eta -ordua eta erregistroko sarrera-zenbakia barne, bai eta, hala badagokio, harekin batera doazen beste dokumentu batzuen egiaztagiria ere, dokumentu horien osotasuna eta gaitzespenik eza bermatzeko.

El registro electrónico de cada Administración u Organismo garantizará la constancia, en cada asiento que se practique, de un número, epígrafe expresivo de su naturaleza, fecha y hora de su presentación, identificación del interesado, órgano administrativo remitente, si procede, y persona u órgano administrativo al que se envía, y, en su caso, referencia al contenido del documento que se registra. Para ello, se emitirá automáticamente un recibo consistente en una copia autenticada del documento de que se trate, incluyendo la fecha y hora de presentación y el número de entrada de registro, así como un recibo acreditativo de otros documentos que, en su caso, lo acompañen, que garantice la integridad y el no repudio de los mismos.

Administrazio guzti-guztien erregistro elektronikoek erabat elkarreragingarriak izan beharko dute, haien bateragarritasun informatikoa eta interkonexioa

Los registros electrónicos de todas y cada una de las Administraciones, deberán ser plenamente interoperables, de modo que se garantice su compatibilidad informática

bermatzeko, bai eta edozein erregistrotan aurkezten diren erregistro-idazpenen eta dokumentuen transmisio telematikoa bermatzeko ere.

e interconexión, así como la transmisión telemática de los asientos registrales y de los documentos que se presenten en cualquiera de los registros.

Ildo beretik jo zuen martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuak, sektore publikoaren jarduera eta funtzionamenduari buruzko erregelamendua bitarteko elektronikoen bidez onartzen duenak.

En el mismo sentido se pronunció el artículo 37 del Real Decreto 203/2021, de 30 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de actuación y funcionamiento del sector público por medios electrónicos.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak hainbat ekimen eta plan bultzatu ditu teknologia berrien erabilera eta informazioaren gizartearen ezarpena lortzeko. Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Erregistro Elektronikoa sortu eta arautu zen.

La Administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi ha impulsado numerosas iniciativas y planes encaminados a lograr la utilización de las nuevas tecnologías y la implantación de la sociedad de la información. Mediante el Decreto 21/2012, de 21 de febrero, de Administración Electrónica, se creó y reguló el Registro Electrónico de la Administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Dekretu hori indargabetuta geratu da ekainaren 20ko 91/2023 Dekretua onartu zelako, herritarrei arreta integrala eta kanal anitzekoa emateari eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeari buruzkoa. 91/2023 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren Erregistro Elektroniko Orokorra arautzen du, zuzenbide publikoari lotutako prozeduretan, zehazki, arauaren 82. artikuluan eta hurrengoetan.

Este decreto ha quedado derogado como consecuencia de la aprobación del Decreto 91/2023, de 20 de junio, de atención integral y multicanal a la ciudadanía y acceso a los servicios públicos por medios electrónicos. El Decreto 91/2023 regula el Registro Electrónico General del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi en sus procedimientos sujetos al derecho público concretamente en el artículo 82 y siguientes de la norma.

Lege horren 84. artikuluak ezartzen duenez, herritarrei arreta emateko eskumena duen saileko titularraren agindu bidez arautuko dira Erregistro Elektroniko Orokorraren funtzionamendua, erregistra daitezkeen dokumentuak, erkaketa- eta erregistro-eragiketak, idazpenak,

El artículo 84 del mismo cuerpo legal establece, que, mediante Orden de la persona titular del departamento competente en atención a la ciudadanía, se regulará el funcionamiento del Registro Electrónico General, los documentos registrables, las operaciones de cotejo y

dokumentuen aurkezpena eta digitalizazioa eta kopiak lortzea, erregistro-agiria, eta egoitza elektronikoan argitaratuko diren ereduak eta formularioak.

Zerbitzu elektronikoen kudeaketaren arloko eskakizun horiei guztiei erantzun egokia emateko, Administrazio Elektronikoaren esparruan eta 91/2023 Dekretuaren aginduari berari dagokionez, formalki arautu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren Erregistro Elektroniko Orokorra, zuzenbide publikoari lotutako prozeduretan.

Indarrean dauden honako araudi hauek aipatu behar dira:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, sektore publikoaren jardunari eta funtzionamenduari buruzko erregelamendua onartzen duena bitarteko elektronikoen bidez.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.
- 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala arautzen duena.

registro, los asientos, la presentación y digitalización de documentos y obtención de copias, el recibo de registro y se aprobarán los modelos y formularios, que se publicarán en la sede electrónica.

Para dar una adecuada respuesta a todas estas exigencias en materia de gestión de los servicios electrónicos, en el marco de la Administración Electrónica y al propio mandato del Decreto 91/2023 en sí mismo, se debe regular formalmente el Registro Electrónico General del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi en sus procedimientos sujetos al derecho público.

Hay que citar la siguiente normativa vigente:

- La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- La Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.
- El Real Decreto 203/2021, de 30 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de actuación y funcionamiento del sector público por medios electrónicos.
- La Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.
- Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad.

- 91/2023 Dekretua, ekainaren 20koa, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa.

II. Aplikazio-eremua.

Agindu hau honako hauei aplikatuko zaie:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio instituzionala, erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek osatua zuzenbide publikoari lotutako prozeduretan. Gaur egun dauden erakunde autonomoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, bai eta agindu hau indarrean jartzen denean eratzen direnak ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde instrumentalak, gaur egun dauden sozietate publikoak eta haien fundazio eta partzuergoak barne hartuta, bai eta agindu hau indarrean jartzen denean eratzen direnak ere, zuzenbide publikoari lotutako prozeduretan.
- Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 10. artikuluan eta hura sortzeko legean arautautako administrazio-agintaritza independenteak, zuzenbide publikoari lotutako prozeduretan.

- Decreto 91/2023, de 20 de junio, de atención integral y multicanal a la ciudadanía y acceso a los servicios públicos por medios electrónicos.

II. Ámbito de aplicación.

Esta Orden se aplicará a:

- La Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- La Administración institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi, integrada por los organismos autónomos y entes públicos de derecho privado en sus procedimientos sujetos al derecho público. Tanto los organismos autónomos y entes públicos de derecho privado actualmente existentes, así como los que se constituyan una vez inicie su vigencia la presente orden.
- Los entes instrumentales del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, abarcando tanto las sociedades públicas como sus fundaciones y consorcios, actualmente existentes, así como aquellos que se constituyan una vez inicie su vigencia la presente orden, en sus procedimientos sujetos al derecho público.
- Las autoridades administrativas independientes reguladas en el artículo 10 de la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco, y en su respectiva Ley de creación, en sus procedimientos sujetos al derecho público.

III. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion araugintza-ahalmenetan bat egitea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena du autogobernatzeko erakundeen antolamendu, erregimen eta funtzionamendua ezartzeko, Estatutu honen arauen barruan.

91/2023 Dekretuaren 84. artikuluak ezartzen duenez, herritarrei arreta emateko eskumena duen saileko titularraren agindu bidez arautuko dira Erregistro Elektroniko Orokorraren funtzionamendua, erregistratu daitezkeen dokumentuak, erkatze- eta erregistro-eragiketak, idazpenak, dokumentuen aurkezpena eta digitalizazioa eta kopiak lortzea, erregistro-ordainagiria, eta egoitza elektronikoan argitaratuko diren ereduak eta formularioak onartuko dira.

Dekretu horren azken xedapenetako lehenengoak, 1. zenbakiko d) letran, ezartzen du ezen, dekretu honetan xedatutakoarekin bat etorriz, dekretu hau indarrean jarri eta sei hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean herritarren arabera eskumena duen organoak agindu bidez arautuko dituela erregistro elektroniko orokorraren funtzionamendua, dokumentu erregistragarriak, erkatze- eta erregistro-eragiketak, idazpenak, dokumentuak aurkeztea eta digitalizatzea eta kopiak lortzea, erregistro-ordainagiria eta ereduak eta formularioak, egoitza elektronikoan argitaratuko direnak.

III. Encaje en las facultades normativas que corresponden a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

De conformidad con lo previsto en el artículo 10.2 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, la Comunidad Autónoma de Euskadi tiene competencia para la «organización, régimen y funcionamiento de sus instituciones de autogobierno dentro de las normas del presente Estatuto».

El artículo 84 del Decreto 91/2023 establece, que, mediante Orden de la persona titular del departamento competente en atención a la ciudadanía, se regulará el funcionamiento del Registro Electrónico General, los documentos registrables, las operaciones de cotejo y registro, los asientos, la presentación y digitalización de documentos y obtención de copias, el recibo de registro y se aprobarán los modelos y formularios, que se publicarán en la sede electrónica.

La Disposición Final Primera, en su apartado 1 subapartado d), del mismo Decreto, establece, que, de conformidad con lo dispuesto en este Decreto, en el plazo de seis meses a partir de la entrada en vigor del mismo, el órgano competente en atención a la ciudadanía de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi regulará mediante Orden el funcionamiento del Registro Electrónico General, los documentos registrables, las operaciones de cotejo y registro, los asientos, la presentación y digitalización de documentos y obtención de copias, el recibo de registro y se aprobarán los modelos y formularios, que se publicarán en la sede electrónica.

Bestalde, Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena) 7.1 artikuluaren f) eta m) apartatuetan xedatzen duenaren arabera, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailaren urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3. artikuluarekin lotuta, honako hauek dira sail horren egitura organikoa ezartzen duten eskumenak dira, besteak beste:

- Administrazioa modernizatzea eta erreformatzea, bai eta administrazio digitala eta gobernu elektronikoa.
- Administrazioaren, administrazio digitalaren, gobernu elektronikoaren eta gardentasun-politikaren araubidea eta erreforma.

IV. Kontuan har daitezkeen beste aukera arautzaile batzuk.

Agindu-proiektuan lortu nahi diren eduki, asmo eta helburuei dagokienez, ez dago beste alternatibarik egin nahi den erregulazioa egiteko moduari buruz, lehen aipatutako egungo esparru juridikotik ondorioztatzen den bezala.

V. Prozedura.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak, ezartzen du zer prozedura bete behar den agindu hori egiteko.

Por otro lado, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 7.1, apartados f) y m) del Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, en relación con el artículo 3 del Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, son competencias de dicho departamento, entre otras, las siguientes:

- La modernización y reforma de la Administración, así como de la administración digital y del gobierno electrónico.
- El régimen y reforma de la Administración, así como de la administración digital y del gobierno electrónico y de la política de transparencia.

IV. Alternativas regulatorias que pueden tomarse en consideración.

Respecto al contenido, propósito y objetivos perseguidos en el proyecto de Orden, no existe ninguna otra alternativa sobre la manera de efectuar la regulación pretendida que no sea ésta, tal y como se desprende del marco jurídico actual antedicho.

V. Procedimiento.

Es la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, la que determina el procedimiento que deberá

observarse para la elaboración de la orden que se pretende.

Era berean, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12.1 artikuluak dioenez, xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren arabera eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da, eta 13. artikuluak prozedura hasteko aginduan jaso beharreko edukia zehazten du.

Asimismo, el artículo 12.1 de la citada Ley 6/2022, de 30 de junio, señala que el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por Orden del Consejero o Consejera titular del departamento competente por razón de la materia sobre la que versen y su artículo 13 especifica el contenido necesario que habrá de observar la Orden de iniciación.

Adierazi ditugun aurrekariekin bat etorrita, eta Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikuluan, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12 eta 13. artikuluetan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 128. artikulutik 133. artikulura bitartean ezarritakoaren arabera, hauxe

De acuerdo con los antecedentes expuestos y en virtud de lo establecido en el artículo 26.4 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, en los artículos 12.1 y 13 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, y en los artículos 128 a 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas,

EBAZTEN DUT:

RESUELVO:

LEHENENGOA.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren Erregistro Elektroniko Orokorra zuzenbide publikoaren mendeko prozeduretan arautzen duen agindu-proiektua egiteko prozedura has dadin agintzea.

PRIMERO.- Ordenar el inicio del procedimiento para la elaboración del proyecto de Orden por la que se regula el Registro Electrónico General del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi en sus procedimientos sujetos al derecho público.

BIGARRENA.- Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza izendatzea lehen aipatutako prozedura izapidetzeaz arduratuko den organo gisa, zuzendaritza horri esleitutako eskumenekin bat etorriz.

SEGUNDO.- Designar a la Dirección de Atención a la Ciudadanía y Servicios Digitales como órgano encargado de la tramitación del procedimiento antes citado, de acuerdo con las competencias atribuidas a la misma.

HIRUGARRENA.- Xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2010eko

TERCERO.- De conformidad con lo dispuesto en el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 28 de diciembre de 2010, por

abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoarekin bat etorriz, agindu hau Legesarea lankidetza-gunean jakinaraziko da.

LAUGARRENA.- Agindua idazteko, kontuan hartu beharko dira Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren uztailaren 28ko 78/2023 Ebazpenaren bidez hura egiteko onartutako jarraibideak. Ebazpen horren bidez, lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzen dituen erabakia argitaratzea xedatzen da.

Sinaduraren datan

el que se aprueban las instrucciones de tramitación de disposiciones de carácter general, la presente Orden se dará a conocer en el espacio colaborativo Legesarea.

CUARTO.- Para la redacción de la orden se deberán tener en cuenta las directrices aprobadas para su elaboración por la Resolución 78/2023, de 28 de julio, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo por el que se aprueban las directrices para la elaboración de proyectos de Ley, Decretos, Órdenes y Resoluciones.

A la fecha de la firma

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburua

La Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno

OLATZ GARAMENDI LANDA

(Elektronikoki sinatua / Firmado electrónicamente)

ERANSKINA

Hasteko agintzen den agindu-proiektua egiteko, honako premisa hauek hartuko dira kontuan:

a.- Xedea eta helburua.

Agindu honen xedea da Erregistro Elektroniko Orokorraren funtzionamendua eta aplikazio korporatibo komun eta zeharkakoa arautzea. Aplikazio horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokor osoan, haren Administrazio instituzionalean eta sektore publikoko gainerako prozeduretan jasotzen edo igortzen diren dokumentu, eskaera, idazki eta komunikazio guztien idazpenak egingo dira, zuzenbide publikoari lotutako prozeduretan, eta dokumentuen sarrera- eta irteera-erregistroaren ohar fidagarria jasoko da elektronikoki, 91/2023 Dekretuaren 82. artikuluaren arabera.

b.- Proposatutako araudiaren edukia.

Aginduan aurreikusitako edukia honako hau da:

- Xedea
- Aplikazio-eremua
- Erregistro Elektroniko Orokorraren arduraduna
- Erregistro Elektroniko Orokorrerako sarbidea
- Erregistro Elektroniko Orokorrean onar daitezkeen dokumentuak
- Erregistratu behar ez diren dokumentuak
- Dokumentuak aurkeztea

ANEXO

En la elaboración del proyecto de la orden cuyo inicio se ordena se tomarán en consideración las siguientes premisas:

a.- Objeto y finalidad.

El objeto de esta Orden es regular el funcionamiento del Registro Electrónico General, la aplicación corporativa común y transversal en el que se hará el correspondiente asiento de todo documento, solicitud, escrito y comunicación que se reciba o remita, en toda la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi y su Administración institucional así como del resto de su sector público en sus procedimientos sujetos al derecho público y que deja constancia electrónica de la anotación fidedigna del registro de entrada y salida de documentos. de acuerdo con el artículo 82 del Decreto 91/2023.

b.- Contenido de la regulación propuesta.

El contenido previsto en la Orden es el siguiente:

- Objeto
- Ámbito de aplicación
- Responsable del Registro Electrónico General
- Acceso al Registro Electrónico General
- Documentos admisibles en el Registro Electrónico General
- Documentos que no precisan ser registrados
- Presentación de documentos

- Dokumentuak jasotzea eta erregistratzea
- Erregistroko oharrak
- Egoitza Elektronikoko erregistroari buruzko edukia
- Erregistroko kontsultak
- Dokumentuen aurkezpena, data, ordu ofiziala eta epeen zenbaketa
- Erantzukizuna
- Hizkuntza-araubidea
- Dokumentuak aurkezteko erakunde laguntzaileak
- Datu pertsonalen babesa

c.- Prestatzen den arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Proiektu honen xede den agindu berria juridikoki bideragarria izango da. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena du autogobernatzeko erakundeen antolamendu, erregimen eta funtzionamendua ezartzeko, Estatutu honen arauen barruan.

91/2023 Dekretuaren 84. artikuluak ezartzen duenez, herritarrei arreta emateko eskumena duen saileko titularraren agindu bidez arautuko dira Erregistro Elektroniko Orokorraren funtzionamendua, erregistratu daitezkeen dokumentuak, erkatze- eta erregistro-eragiketak, idazpenak, dokumentuen aurkezpena eta digitalizazioa eta kopiak lortzea, erregistro-ordainagiria, eta egoitza

- Recepción y registro de documentos
- Anotaciones del Registro
- Contenido sobre el registro en la Sede Electrónica
- Consultas al Registro
- Presentación de documentos, fecha, hora oficial y cómputo de plazos
- Responsabilidad
- Régimen lingüístico
- Entidades colaboradoras para la presentación de documentos
- Protección de datos de carácter personal

c.- Viabilidad jurídica y material de la norma que se elabora.

La nueva orden objeto de este proyecto será viable jurídicamente. De conformidad con lo previsto en el artículo 10.2 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, la Comunidad Autónoma de Euskadi tiene competencia para la «organización, régimen y funcionamiento de sus instituciones de autogobierno dentro de las normas del presente Estatuto».

El artículo 84 del Decreto 91/2023 establece, que, mediante Orden de la persona titular del departamento competente en atención a la ciudadanía, se regulará el funcionamiento del Registro Electrónico General, los documentos registrables, las operaciones de cotejo y registro, los asientos, la presentación y digitalización de documentos y obtención de copias, el recibo de registro y se

elektronikoan argitaratuko diren ereduak eta formularioak onartuko dira.

Bere aldetik, Dekretu horren azken xedapenetako lehenengoak, 1. zenbakiko d) letran, ezartzen du ezen, dekretu honetan xedatutakoarekin bat etorriz, dekretu hau indarrean jarri eta sei hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean herritarren arabera eskumena duen organoak agindu bidez arautuko dituela erregistro elektroniko orokorraren funtzionamendua, dokumentu erregistragarriak, erkatze- eta erregistro-eragiketak, idazpenak, dokumentuak aurkeztea eta digitalizatzea eta kopiak lortzea, erregistro-ordainagiria eta ereduak eta formularioak, egoitza elektronikoan argitaratuko direnak.

Bestalde, oinarri du Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1 artikuluaren f) eta m) letretan xedatutakoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3. artikuluarekin lotuta.

Bestalde, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikuluaren arabera, sailburuen eskumena da “bere sailari dagozkion gaietan guztizko arduralaritza-aginduak eta erabakiak ematea.”

Gainera, agindua materialki bideragarria izango da.

aprobarán los modelos y formularios, que se publicarán en la sede electrónica.

Por su parte, la Disposición Final Primera, en su apartado 1 subapartado d), del mismo Decreto, establece, que, de conformidad con lo dispuesto en este Decreto, en el plazo de seis meses a partir de la entrada en vigor del mismo, el órgano competente en atención a la ciudadanía de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi regulará mediante Orden el funcionamiento del Registro Electrónico General, los documentos registrables, las operaciones de cotejo y registro, los asientos, la presentación y digitalización de documentos y obtención de copias, el recibo de registro y se aprobarán los modelos y formularios, que se publicarán en la sede electrónica.

Por otro lado, tiene fundamento en lo dispuesto en el artículo 7.1, apartados f) y m) del Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, en relación con el artículo 3 del Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno.

Por otro lado, el artículo 26.4 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley del Gobierno, señala que es competencia de los consejeros “dictar disposiciones administrativas generales y resoluciones en materias de su Departamento”.

Además, la orden será viable materialmente.

d.- Antolamendu juridikoan izango duen eragina.

Agindu berriak ez du inolako indargabetzerik edo aldaketarik ekarriko.

e.- Aurrekontuan izango duen eragina.

Aginduaren aplikazioak ez du inolako eragin ekonomikorik izango. Horrela, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak ez du baliabide ekonomikorik erabili behar, ez eta aurrekontu-kontsignazio gehigarririk ezarri ere, indarreko aurrekontuetan xede hori betetzeko.

Hala ere, xehetasun handiagoz erantzungo zaio alderdi horri horretarako egingo den memoria ekonomikoan.

f.- Egin beharreko izapideak eta txostenak.

Agindu berria onartzeko, proiektuari dagokion administrazio-izapideari jarraitu behar zaio, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 128. artikulutik 133.era bitartekoetan aurreikusitako prozeduraren arabera, eta Tramitagunerako onartutako izapidetze-ereduan xedatutakoaren arabera.

*Hasierako fasea:*

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatutakoa betez, herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari buruzkoa, arauaren testua egin aurretik kontsulta publikoa egin da, Euskal

d.- Repercusión en el ordenamiento jurídico.

La nueva Orden no conllevará derogación o modificación alguna.

e.- Incidencia presupuestaria.

La aplicación de la Orden no tendrá ninguna incidencia económica. De esta forma no se precisa destinar ningún recurso económico ni establecer consignación presupuestaria adicional por el Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno con dicho cometido en los presupuestos vigentes.

No obstante, se dará respuesta a este aspecto con mayor detalle, en la Memoria Económica que se elaborará al efecto.

f.- Trámites e informes procedentes.

Para aprobar la nueva Orden es preciso seguir la tramitación administrativa pertinente del proyecto, conforme al procedimiento previsto en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General y en los artículos 128 a 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y de acuerdo con lo dispuesto en el modelo de tramitación aprobado para Tramitagune.

*Fase de iniciación:*

- En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 133.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, sobre la participación de la ciudadanía en el procedimiento de elaboración de normas con rango de Ley y

Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan iragarkia jarriz. Bertan, arauaren eraginpeko herritarren iritzia jaso da, bai eta arauaren eraginpean dauden eskubide edo interes legitimoak dituzten pertsonak biltzen edo ordezkatzen dituzten erakunde edo elkarteena ere, baldin eta haien helburuek arauaren xedearekin zerikusi zuzena badute. Ez da ez ekarpenik ez oharrik aurkeztu.

reglamentos, se ha sustanciado consulta pública previa a la elaboración del texto de la norma a través de anuncio en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En ella se ha recabado la opinión de la ciudadanía afectada y de las organizaciones o asociaciones que agrupen o representen a las personas cuyos derechos o intereses legítimos se vieren afectados por la norma y cuyos fines guarden relación directa con su objeto, acerca de los extremos en aquélla referidos. No se ha presentado ninguna aportación ni observación.

- Hasteko agindu hau emango da, eta ezagutza partekatuko Legesarea lankidetza-gunean argitaratuko da, Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakia betez.

- Se dictará la presente Orden de Iniciación y se procederá a publicar la misma en el espacio colaborativo de conocimiento compartido Legesarea en cumplimiento del Acuerdo de Consejo de Gobierno de 28 de diciembre de 2010.

Halaber, Legegunea publizitate aktiboaren atarian argitaratuko da, gobernu onaren, gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen arloan indarrean dagoen araudia betez.

Asimismo, se procederá a su publicación en el portal de publicidad activa, Legegunea, en cumplimiento de la normativa vigente en materia de buen gobierno, transparencia y participación ciudadana.

Halakorik izanez gero, kontuan hartuko dira hasteko agindua iragarki-taulan, Legesarean eta Irekian argitaratzetik eratorritako ekarpenak eta oharrak, xedapen orokorrean arautu nahi denaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko.

Se tendrán en cuenta, en caso de haberlas, las aportaciones y observaciones derivadas de la publicación en el Tablón de anuncios, Legesarea e Irekia de la orden de inicio, todo ello para garantizar el acierto y legalidad de lo que se pretende regular en la disposición de carácter general.

- Arau-eraginaren analisiaren memoria bat egingo da, Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3 artikuluan aipatzen diren alderdi garrantzitsuak jasoko dituena.

- Era berean, memoria ekonomikoa egingo da.

- Generoaren ikuspegitik garrantzirik ez duela justifikatzeko txostena egingo da. Genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideetan xedatutakoaren arabera (Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21ean onartu zituen).

- Ondoren, arestian aipatu denarekin bat etorrita, aipatutako legean adierazita dauden jarraibideak beteko dituen aginduaren testua idatziko da. Agindua euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1. artikuluarekin eta Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakiarekin bat etorrita (erabaki horren bidez, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorren idazketa elebidunerako neurriak onartzen dira). Itzulpen-lana Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzulpen Zerbitzu Ofizialari esleituko zaio. Kontuan hartuko da apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoa (Euskal Autonomia Erkidegoko

- Se elaborará una memoria del análisis de impacto normativo, que contenga los aspectos relevantes a los que hace referencia el artículo 15.3 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General.

- Asimismo, se emitirá la memoria económica.

- Se emitirá el informe justificativo de la ausencia de relevancia desde el punto de vista del género. De acuerdo con lo dispuesto en las Directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar las desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres, aprobadas por el Consejo de Gobierno el 21 de agosto de 2012.

- A continuación, se redactará, de conformidad con lo previamente indicado, un texto de la Orden que siga las pautas indicadas en la referida Ley. Esta redacción será de modo bilingüe, de conformidad con el artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del uso del Euskera, y con el acuerdo de Consejo de Gobierno de 14 de mayo de 2013 por el que se aprueban las medidas para la elaboración bilingüe de las disposiciones de carácter general que adopten la forma de ley, decreto legislativo, decreto u orden, con asignación de la traducción al Servicio Oficial de Traductores del Instituto Vasco de Administración Pública. Se tendrá en cuenta lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto 48/2012, de 3 de abril, por el que se determina la

Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen zerbitzuak zentralizatzeko agindua ematen du dekretu horrek).

centralización de los servicios transversales de traducción de la Administración general de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos.

*Aldez aurreko onarpena:*

- Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu-proiektua aldez aurretik onartzeko agindua emango da.
- Aldez aurreko onarpen-agindu hori eta arau-proiektuaren testua Legesarean argitaratuko dira, Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakia betez.

*Aprobación previa:*

- Se dictará la Orden de aprobación previa del proyecto de Orden de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno.
- Dicha orden de aprobación previa junto con el texto del proyecto de norma será publicada en Legesarea, en cumplimiento del Acuerdo de Consejo de Gobierno de 28 de diciembre de 2010.

*Instrukzioa:*

- Agindu-proiektuak honako txosten eta izapide hauek bete beharko ditu:
  - Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Aholkularitza Juridikoaren nahitaezko txosten juridikoa, izapidetze horren organo arduraduna den aldetik.
  - Eusko Jaurlaritzako gainerako sailetako aholkularitza juridikoen txostenak, eta zuzenbide pribatuko organismo eta erakunde publikoetako aholkularitza juridikoen txostenak, guztiek erabiliko baitute erregistroa.
  - Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren txostena, euskararen erabileraren normalizazioari eta xedapen orokorrak egiteko prozeduraren barruan Kultura Sailak txostenak bideratzeko bete behar duen araudia ezartzen duen azaroaren

*Instrucción:*

- El proyecto de Orden deberá someterse a los siguientes informes y trámites:
  - El informe jurídico preceptivo de la Asesoría Jurídica del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, como órgano responsable de esta tramitación.
  - Los informes de las Asesorías Jurídicas del resto de departamentos del Gobierno Vasco, las Asesorías Jurídicas de los organismos y entes públicos de derecho privado, dado que todos ellos harán uso del registro.
  - El informe de la Viceconsejería de Política Lingüística, respecto a la normalización del uso del euskera y su adecuación a la normativa vigente en materia lingüística que dispone el artículo 2 del Decreto 233/2012, de 6 de noviembre, por el que se establece el régimen de

6ko 233/2012 Dekretuaren 2. artikuluak hizkuntza arloan indarrean dagoen araudira egokitzeari buruzkoa.

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, genero-ikuspegitik garrantzirik ez duela justifikatzen duen txostena zuzena dela egiaztatzeko.
- Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostena, giza baliabideen arduradun gisa.
- Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren txostena, dokumentazioa artxibatzeko arduradun gisa.
- Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren txostena, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko abenduaren 21eko 16/2023 Legearen 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- Gainerako sozietate publikoen, EAEko sektore publikoko fundazioen eta izapidetze elektronikoa duten partzuergoen aholkularitza juridikoen txostenak erregistroa erabiliko bait dute.

- Hogei egun balioduneko epean jendaurrean jartzeko izapidea jarriko da, agindu-proiektuaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuta, herritarrek eta erakundeek agindu-proiektuari buruz duten iritzia eta ekarpenak jasotzeko. Hori guztia Xedapen Orokorrak Egiteko

inclusión de la perspectiva de normalización del uso del euskera en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

- El informe de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, a efectos de verificar que el informe justificativo de la ausencia de relevancia desde el punto de vista del género es correcto.
- El informe de la Dirección de Función Pública como responsable de los medios personales.
- El informe de la Dirección de Recursos Generales como encargados del archivo de la documentación.
- El informe de la Autoridad Vasca de Protección de Datos, conforme a lo previsto en el artículo 6 de Ley 16/2023, de 21 de diciembre, de la Autoridad Vasca de Protección de Datos.
- Los informes de las Asesorías Jurídicas del resto de sociedades públicas, fundaciones del sector público de la CAE y Consorcios que dispongan de tramitación electrónica y harán uso del registro.

- Se dará trámite de exposición pública a la ciudadanía por un plazo de veinte días hábiles mediante la publicación del texto del proyecto de la Orden en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a fin de recabar la opinión y aportaciones de la ciudadanía y entidades sobre el proyecto de Orden.

Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egingo da, xedapenaren izaera kontuan hartuta eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.2 artikuluan xedatutakoa betez.

Todo ello conforme a las previsiones del artículo 17 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General dada la naturaleza de la disposición y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 133.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

- Ez da beharrezkoa izango legezkotasun-txostena egitea; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 12.i) artikuluaren arabera, 91/2023 Dekretua garatzeko emandako agindu-proiektua da.

- No será necesario emitir informe de legalidad, conforme al artículo 12.i) del Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco, en cuanto que se trata de un proyecto de Orden dictada en desarrollo del Decreto 91/2023.

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren nahitaezko txostena eskatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuan aurreikusitako ekonomia- eta araudi-kontrolari buruzko memoria ekonomikoa egin ondoren.

- Se recabará el informe preceptivo de la Oficina de Control Económico, previa elaboración de una memoria económica, referente al control económico-normativo previsto en el Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

- Ez da izapiderik egin beharko Europar Batasunaren aurrean, kontuan hartuta aplikazio-eremu eta arauaren xede eta helburu zehatzak.

- No será necesario seguir ningún trámite ante la Unión Europea, teniendo en cuenta el ámbito de aplicación y el objeto y finalidad concretos de la norma.

*Onarpen-fasea:*

*Fase de aprobación:*

- Aginduaren testua behin betiko idatziko da.

- Se procederá a la definitiva redacción del texto de la orden.

- Prozedura osoari buruzko memoria labur bat egingo da, eta memoria horretan berariaz aipatuko dira Xedapen Orokorrak Egiteko

- Se emitirá una memoria sucinta de todo el procedimiento en cuyo contenido habrá de figurar referencia expresa a los extremos previstos,

Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3 artikuluaren bigarren eta hirugarren apartatuetan, hurrenez hurren, aurreikusitako alderdiak.

respectivamente, en el artículo 15.3 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

g.- Izapidetze elektronikoa.

Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoa aplikatuz, espedientea erabat elektronikoki izapidetuko da PLATEA-Tramitagune Administrazio Elektronikoaren Plataforma Bateratuan.

g.- Tramitación electrónica.

En aplicación a lo dispuesto en el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 28 de diciembre de 2010 el expediente será tramitado de forma totalmente electrónica en la Plataforma Común de la Administración Electrónica PLATEA-Tramitagune.

h.- Zabalpen eta publizitate aktiboa.

Pertsonek administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideei buruz ezarritakoaren arabera, informazio publikoa, artxiboak eta erregistroak eskuratzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13d) artikuluan eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7 c) artikuluan ezarritakoaren arabera, Legegunea atarian argitaratuko dira dekretu-proiektua, espedienteak osatzen dituzten memoriak, irizpenak eta txostenak, eta, bereziki, arau-eraginaren azterketaren memoria.

h.- Difusión y publicidad activa.

Conforme a lo establecido sobre los derechos de las personas en sus relaciones con las Administraciones Públicas, para el acceso a la información pública, archivos y registros, de acuerdo con lo previsto en el artículo 13d) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y en el artículo 7 c) de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, será objeto de publicación en el portal Legegunea el proyecto de la Orden, las memorias, dictámenes e informes que conformen el expediente, y en particular, la memoria del análisis de impacto normativo.

i.- Idazketa elebidunerako metodoa.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikulua betetzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialak itzuliko du erregelamenduzko araudiaren testuaren gaztelaniazko/euskarazko bertsioa, xedapen orokorreko izaera duen agindu bat delako.

i.- Método para la redacción bilingüe.

El sistema que se utilizará para el cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 8.1 de la Ley 10/1982, Básica de Normalización del uso del Euskera, será la traducción por el Servicio Oficial de Traductores del Instituto Vasco de Administración Pública de la versión castellana/euskera del texto normativo del

reglamento, por tratarse de una Orden que tiene ese carácter de disposición general.

Era berean, adierazitako moduan, Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakiari jarraituko zaio, non onartu egin baitzen lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorren idazketa elebidunerako neurriak onartzeko erabakia, eta, testu elebidun osoa edukita, informazio publikoaren izapidea eta txostenen eskaerak egingo dira, instrukzio-fasean.

Asimismo, como ya se ha indicado, en este aspecto se seguirá el acuerdo de Consejo de Gobierno de 14 de mayo de 2013 por el que se aprueban las medidas para la elaboración bilingüe de las disposiciones de carácter general que adopten la forma de ley, decreto legislativo, decreto u orden, de forma que con el texto del proyecto completo bilingüe se realizará el trámite de información pública a la ciudadanía y la solicitud de los informes durante la fase de instrucción.

j.- Europar Batasunaren aurreko izapideak.

j.- Trámites ante la Unión Europea.

Ez da izapiderik egin beharko Europar Batasunaren aurrean, kontuan hartuta aplikazio-eremu mugatua eta arauaren xede eta helburu zehatzak.

No será necesario seguir ningún trámite ante la Unión Europea, teniendo en cuenta el ámbito limitado de aplicación y el objeto y finalidad concretos de la norma.